



Aktibitatearen gida

Online prestakuntza-jarduera

PAZIENTEAREN SEGURTASUNAZ OINARRIZKO IKASTAROA



INDIZE

<i>Sarrera</i>	<i>2</i>
<i>Helburu nagusiak.....</i>	<i>3</i>
<i>Objetivos espezifikoak.....</i>	<i>3</i>
<i>Norentzat.....</i>	<i>4</i>
<i>Egitura eta edukiak</i>	<i>4</i>
<i>Ikastaroaren metodologia.....</i>	<i>7</i>
<i>Ebaluazio irizpideak.....</i>	<i>8</i>
<i>Ikasleei laguntzeko taldea</i>	<i>9</i>

SARRERA

Osasun-asistentziari lotutako arriskuaren kudeaketaren barruan, estrategia berriak bilatzeari ekin zaio azken urteetan, kontrako gertaeren (KG) probabilitatea murrizteko eta gaixoaren segurtasuna hobetzeko. Horretarako, bada, hainbat mailatan koordinatutako jarduerak egin behar dira sistema osoari begira, eta interes-talde guztiek hartu behar dute parte jarduera horietan. Horrenbestez, arazoak zer-nolako garrantzia eta hedadura duen azalertzeari ekin diote zenbait organismok, eta nazioarteko politikak ezarri dira, osasun-sistemaren oker-kopurua murriztera bideratuta beren beregi.

Osasun-langileei pazientearen segurtasunaren gaineko prestakuntza ematea da proposatutako ekintzetako bat. Hala, Europako Osasun Kontseiluak, berrogeita hamaseigarren bileran, prestakuntza- eta hezkuntza-planak eratzea gomendatu zien Europar Batasuneko estatu kideen gobernuei, segurtasun-arazoak egokiro bideratu ahal izateko eta arriskuak kudeatzeko programak abian jartzeko.

Horrekin guztiarekin bat, Osakidetzak, Pazientearen Segurtasunaren aldeko Programa Korporatiboaren barruan, ahalik eta profesional gehienei helarazi nahi dizkie segurtasun klinikoaren oinarrizko printzipioak. Horri loturik, “ **Pazientearen Segurtasunari Buruzko Oinarrizko Ikastaroa**” izeneko antolatu du, on line formatuan, aurtengo Prestakuntzako Plan Korporatiboaren barruan dagoena.

Espero dugu prestakuntza-jarduera honek zure espektatibak betetzea eta asistentzia segurua, eraginkorra eta kalitatekoa sustatzeari begirako jardunbide egokiak bultzatzea. Horixe baita osasun-sistemari eusten diozuenon eta sistema horren xede diren pazienteen nahia.

HELBURU OROKORRA:

Helburu orokorra hau da: **Segurtasunaren kultura sustatzea, pazientearen segurtasunari buruzko oinarritzko ezagutzak landuz.**

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

Ikastaroak emango dizkien ezagutzei esker, ikasleek hau lortuko dute:

- Pazientearen segurtasunari buruzko kontzeptu orokorrak ulertzea.
- Arazoaren garrantziaz eta tamainaz kontzientzia hartzea.
- Segurtasunari lotutako terminologia eta taxonomia interpretatzea.
- Arriskuen kudeaketaren zikloa osatzen duten aldiak eta osagaiak identifikatzea.
- Kontrako gertaeren eremuan gaur egun dauden jakinarazpen-sistemak eta esperientziak ezagutzea.
- Pazientearen segurtasuna bermatzeko estrategia eta Osakidetzan abian jarritako jardunbide egokiak baloratzea.

NORENTZAT:

Osakidetzako profesionalak, edozein kategoria edo arlotakoak.

EGITURA ETA EDUKIAK:

Ikastaroa zortzi moduluk osatzen dute:

1. modulua.- Zer ematen dugu aditzera pazientearen segurtasunari buruzko oinarritzko ikastaro bati buruz ari garenean?

- Beren-beregi pazientean oinarritutako osasun-arreta.
- Hipokratesen printzipioa: "Primum non nocere" edo "ororen gainetik, kalterik ez egin".
- Asistentziaren kalitatearen dimentsio nuklearra.
- Osasun-testuinguru gero eta konplexuagoa eta gero eta arriskutsuagoa
- Aldaketak eragiteko esku-hartzeak nazioartean, estatuan zein tokian-tokian.
- Sistema-ikuspegia, kausa aniztasunagatik.
- Segurtasun-kultura
- Pazientearen segurtasunaren gainean gogoeta egiteko zenbait esaldi

2. modulua.- Kontrako gertaeren epidemiologia

- Kontrako gertaeren analisia.
- Azterketa epidemiologiko motak.
- Kontrako gertaeren gaineko azterketa epidemiologikoak.

3. modulua.- Kontzeptu-markoa pazientearen segurtasunaren arloan

- Pazientearen segurtasunari buruzko funtsezko kontzeptuak.

4. modulua.- Asistentzia-arriskuak kudeatzea. Arriskuak kudeatzeko tresnak.

- Asistentzia-arriskua eta okerra.
- Faktore latenteak edo faktore eragileak.
- Asistentzia-arriskuaren ikuspegiak.
- Arriskuak kudeatzeko tresnak.

5. modulua.- Pazientearen Segurtasunaren gaineko jakinarazpen eta ikaskuntza sistema.

- Sarrera.
- Lege-esparrua.
- Sistemen ezaugarriak.
- Jakinarazpen-motak.

6. modulua.- Osakidetzan pazientearen segurtasunaren arloan garatutako jardunbide egokiak.

- Gogoeta egiteko esaldiak.
- Jardunbide egokiak pazientearen segurtasunaren arloan.
- Osakidetzan pazientearen segurtasunaren arloan garatutako jardunbide egokiak.
- Ondorioak.
- Azken hausnarketa.

7. modulua.- Pazientearen Segurtasunaren gaineko programa korporatiboa.

- INOZ plana.
- Pneumonia ZERO.
- Kirurgia segurua.
- Haurdunaldiaren, erditzearen eta puerperioaren asistentzia-prozesua.
- Pazientearen Segurtasunaren gaineko jakinarazpen eta ikaskuntza sistema.
- 10.000 kontrako gertaera gutxitzeko kanpaina.
- Historial dosimetrikoa.
- Transfusioensegurtasun-sistema.

8. modulua.- Ikastaroko bibliografia.

- Kontrako gertaeraren epidemiologia. Segurtasun-kultura.
- Pazientearen segurtasunaren arloko gorabeherak jakinarazteko sistemak.
- Asistentzia-arriskua kudeatzea.
- Kontrako gertaera espezifikoak eta jardunbide egokiak.
- Infekzioa.
- Medikazioa.
- Prozedura.

IKASTAROAREN METODOLOGIA

Ikastaroa on line prestakuntza bidez egingo da; horretarako, plataforma batera sartuko dira ikasleak, eta han izango dituzte eskuragarri behar dituzten tresna guztiak, ikasleak zer aurrerapen egin duen uneoro jakiteko.

Zortzi moduluetakoko eduki teorikoak pdf formatuko dokumentuen bidez jarriko dira ikasleen eskura, horrela eduki bakoitza aparte irakurri ahal izateko. Modulu bakoitzak egitura homogeneoa izango du, ikasleek aise bereizi ahal izateko atal guztiak; gainera, nabarmenduta ageriko dira gogoratu beharreko «funtsezko jakingaiak».

Hau da modulu edo kapitulu bakoitzaren egitura:

- Kapituluaren aurkezpena
- Funtsezko kontzeptuak
- Kapituluaren irakurketa
- Autoebaluazioa
- Ondorioak

Gehigarri modura, modulu bakoitzari buruzko bibliografia aipagarriena jarriko da ikasleen eskura, eta, azken moduluan, bibliografia gomendagarria emango zaie.

Zalantzarik izanez gero, ikastaro honetan garatutako kontzeptu, tresna edo edukiekin lotutakoak, edo ekarpen edo iradokizunen bat egin nahi badu, pazientearen segurtasunaren arloko eguneroko jarduerari buruzkoa, ikasleak kontsulta egin ahalko dio bere erakundean arlo horretako erreferentea denari. Hurrengo helbide elektroniko honetara ere jo dezake:

GUNE.SEGURUA@OSAKIDETZA.NET

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ikastaro honetan etengabeko ebaluazioa egingo da, eta hau hartuko da kontuan: edukiak ikastea eta azken ebaluazioa gainditzea.

Ikastaroa gainditzeko eta egiaztagiria lortzeko gutxienerako irizpideak hauek dira:

- Ikastaroko **multimedia edukien** %100 landu eta ikastea.
- Ikasgelan jarriko den azken ebaluazioa gainditzea. Horretarako, ikasleak **HIRU saialdi** izango ditu **10 galderako** azterketa bat egiteko, eta, **gutxienez, %70** asmatu beharko ditu. Saialdi bakoitzean, aldatu egingo dira galderak.

Irizpide horiek gainditzen dituzten izangaiak **GAI** izango dira, eta **Egiaztagiria** jasoko dute.

Gainera, bertan dagoen satisfakzio galdetegiaren galderei erantzutea eskatuko zaio. Zure ekarpenak balio handikoak izango dira. Inkesta plataforman behin jarrita, foroaren bidez mezu bat bidaliko da zuek jakinarasteko.

IKASLEEI LAGUNTZEKO TALDEA

Arazo teknikorik izanez gero, mesedez harremanetan jarri ekintzaren arduradunarekin. bere izena plataforman izango duzue eskuragarri

- Laguntzarako erreferenteak eta harremanetarako bideak:

Zalantzarik izanez gero, ikastaro honetan garatutako kontzeptu, tresna edo edukiekin lotutakoak, edo ekarpen edo iradokizunen bat egin nahi baduzu, **pazientearen segurtasunaren** arloko zure eguneroko jarduerari buruzkoa, helbide honetara jo dezakezu:

GUNE.SEGURUA@OSAKIDETZA.NET

Eta gogoan izan etengabeko laguntza izango duzula **Pazientearen Segurtasunaren** arloan zure erakundean **erreferenteak** direnen aldetik. Ondoko zerrendan duzu beraiekin harremanetan jartzeko modua:

ERAKUNDEA	IZENA	TELEFONOA	MAIL
Arabako ESI	INMACULADA MORAZA DURANTO	945 007321	MARIAINMACULADACONCEPCION.MORAZADULANTO@osakidetza.eus
Arabako ESI	NATALIA ALVAREZ MOREZUELAS	945 007600 - 815670	MARIANATALIA.ALVAREZMOREZUELAS@OSAKIDETZA.EUS
Arabako ESI	GUILLERMO ALCALDE BEZHOLD	945 007802	GUILLERMO.ALCALDEBEZHOLD@OSAKIDETZA.EUS
Arabako ESI	GUILLERMO AGUIRRE LEJARCEGUI	945 006730	GUILLERMO.AGUIRRELEJARCEGUI@OSAKIDETZA.EUS
Errioxako ESI	CRISTINA LARRODÉ PELLICER	945 006900	CRISTINAVICTORIA.LARRODEPELLICER@OSAKIDETZA.EUS
Bilbao-Basurto ESI	ANTXON APEZETXEA CELAYA	94 4006250	ANTONIO.APEZETXEACELAYA@OSAKIDETZA.EUS
Ezkerraldea-Enkarterri-	MIKEL LATORRE GUIASOLA	94 6006000 - 846269	MIGUEL.LATORREGUISASOLA@OSAKIDETZA.EUS
Ezkerraldea-Enkarterri-	PATRICIA ZABALLA ERICE	94 6007592 - 865595	PATRICIA.ZABALLAERICE@OSAKIDETZA.EUS
Barrualde-Galdakao ESI	ARANTZA BURZAKO PÉREZ	94 4007000	MIRENARANTZA.BURZAKOPEREZ@osakidetza.eus
Barrualde-Galdakao ESI	ROSA MARÍA AÑEL RODRIGUEZ	94 6032880	ROSAMARIA.ANELRODRIGUEZ@OSAKIDETZA.EUS
Barakaldo-Sestao ESI	VANESA MARTIN GONZÁLEZ	94 4006700	VANESA.MARTINGONZALEZ@OSAKIDETZA.EUS
Debagoieneko ESI	CONCEPCION MUÑOZ MIGUEL	943 035300	MARIACONCEPCION.MUNOZMIGUEL@OSAKIDETZA.EUS
Debagoieneko ESI	ESMERALDA SANTANA PÉREZ	943 035300 - 835738	CARMENESMERALDA.SANTANAPEREZ@OSAKIDETZA.EUS
Donostialdeako ESI	ELENA ZAVALA AIZPURUA	943 007000 - 837088	MARIAELENA.ZAVALAAIZPURUA@osakidetza.eus
Tolosaldeako ESI	ANTTON ALDANONDO GABILONDO	943 653212 - 824843	JOSEANTONIO.ALDANONDOGABILONDO@OSAKIDETZA.EUS
Bidasoako ESI	AMAIA ALTUBE GACIÑO	943 007700	AMAYA.ALTUBEGACINO@osakidetza.eus
Bidasoako ESI	HORTENSIA ESPARZA MUÑOZ	943 007700 - 837743	MARIAHORTENSIA.ESPARZAMUNOZ@OSAKIDETZA.EUS
Debarrenako ESI	JORGE TABOADA GOMEZ	943 002800 - 832818	JORGE.TABOADAGOMEZ@OSAKIDETZA.EUS
Goierrri-Urola Garaiko ESI	ANA CALVO AGUIRRE	943 005000	ANA.CALVOAGUIRRE@OSAKIDETZA.EUS
Goierrri-Urola Garaiko ESI	ITZIAR LANZETA VICENTE	943 005000	ITZIAR.LANZETAVICENTE@OSAKIDETZA.EUS
Santa Marina Ospitalea	BEATRIZ PACHO MARTIN	94 4006974	BEATRIZ.PACHOMARTIN@OSAKIDETZA.EUS
Santa Marina Ospitalea	LUIS MARTINEZ MARTINEZ	94 4006900	L.MARTINEZ.MARTINEZ@OSAKIDETZA.EUS
Gorlizko Ospitalea	MARÍA LUZ SECO RODRÍGUEZ	94 4006600	MARIALUZ.SECORODRIGUEZ@OSAKIDETZA.EUS
Gorlizko Ospitalea	Mª TERESA URIARTE GARCÍA	94 4006600	MARIATERESA.URIARTEGARCIA@osakidetza.eus
Uribe ESI	MARI LUZ MARQUES GONZALEZ	94 6007005	MARILUZ.MARQUESGONZALEZ@OSAKIDETZA.EUS
Uribe ESI	PEDRO ORTUETA CHAMORRO	94 6007005	PEDROJAVIER.ORTUETACHAMORRO@OSAKIDETZA.EUS

Arabako OMS	ANA AUDICANA URIARTE	945 006525	ANAROSARIO.AUDICANAURIARTE@OSAKIDETZA.EUS
Bizkaiko OMS	AINHOA VALENCIANO GONZÁLEZ	944 705247	AINHOA.VALENCIANOGONZALEZ@OSAKIDETZA.EUS
Gipuzkoako OMS	ALVARO IRUIN SANZ	943 006066	ALVARO.IRUINSANZ@OSAKIDETZA.EUS
Emergentziak	ISABEL VIRTUS ALDANONDO	94 4007474	MARIAISABEL.VIRTUSALDANONDO@OSAKIDETZA.EUS

